



Esp. kodea: 2024PHLF0002

Gaia: Mantenuko burua, oposizio-lehiaketa

AURRETIAZKO INFORMAZIOA

BIGARREN PROBA

B Zatia, atal praktikoa:

- Data: 2025eko ekainaren 17an
- Ordua: 11:00
- Lekua: **Kulturete eraikina**, Azoka kalea 1
- Ezin izango da irten azterketa hasten denetik gutxienez 30 minutu pasatu arte.
- Azterketa gunearen barruan, zaintzaileek esandakoari jarraituko zaio beti.

JARRAIBIDEAK

Irakurri arretaz jarraibide hauek. Oso garrantzitsuak dira azterketa nola egin jakiteko. Azterketa egiteko moduari buruzko zalantzarik edo zailtasunik baduzu, galdetu zaintzaileei azterketa hasi aurretik.

EZ IDATZI EZER AGINDUA EMAN ARTE.

B Zatiak, atal praktikoak, bi zati izango ditu:

- Lehenengoa, idatziz ebaztea zenbait kasu. Horretarako 90 minutu izango dituzu:

- Mahaiaren gainean ondoko materiala aurkituko duzu:
 - jarraibideen bi orri (euskaraz eta gaztelaniaz)
 - kartazal handia
 - kartazal txikia
 - identifikazio txartela
 - kasuak ebazteko orriak.

Zerbait falta bada, eskua altxa eta eskatu zaintzaileari.

- Azterketa egin bitartean, zure **NANa** mahai gainean utzi behar duzu, ikusteko moduan. Telefono mugikorra ekarri baduzu, itzali egin behar duzu. Azterketan zehar, eman zaizun materiala, azterketan

Kodea	AG25/04118	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1B0D6.K.XaH0			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1B0D6K.XaH0			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024PHLF0002

Gaia: Mantenuko burua, oposizio-lehiaketa

bertan banatu zaizuna, NANA eta **boligrafoa (beltza edo urdina)** baino ezingo dituzu eduki mahai gainean.

- Isiltasunak erabatekoa izan behar du azterketa gunean zauden denbora oro. Besteentzat desegokia edo gogaikarria den edozein jokabidek esparrutik kanporatzea ekarriko du.
- 1. Ez idatzi ezer kartazaletan. Kartazal handian zein txikian egindako edozein identifikazio ikurrek automatikoki ekarriko dute ariketa baliogabetzea.
- 2. **Idatzi, agindua ematen zaizunean**, izena, bi abizenak eta NA zenbakia identifikazio txartelean, **beste inon ez**. Idatzi data eta probaren izena.
- 3. Sartu identifikazio txartela kartazal txikian, berau itxi eta kartazal handian sartu. Ez itxi kartazal handia azterketaren amaieran erantzun orria sartu arte.
- 4. Azterketak hiru atal ditu idatziz ebazteko eta atal bakoitzari dagokion puntuazioa jasota dago enuntziatuarekin batera.
- 5. **Ariketa amaitzean**, sartu orriak kartazal handian; altxa eskua eta itxaron zaintzailea hurbildu arte. Gogoratu ezin dela identifikaziorik edo markarik agertu kartazaletan edo/eta erantzun orrian.
- 6. **Behin** azterketa entregatu ondoren, irten ahal izango zara azken proba egitera, **ahozkoa**.
- 7. Azterketa eraman dezakezu zurekin, azterketa amaitzean.

- **Bigarrena, ahoz ebaztea epaimahairen aurrean kasu bat.**

- Ahozko zatia banan-banan egingo da eta neurriak hartuko dira informazioaren elkar-trukatzea ekiditeko.
- Proba prestatzeko 15 minutu emango dira.
- Ahozko probaren hurrenkera izango da idatzizko azterketaren amaieraren arabera.
- Ahozko proba grabatuko da.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

Kodea	AG25/04118	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1B0D6.K.XaH0			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1B0D6K.XaH0			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				